

	5	4	3	2	1
Lanaren banaketa	Lana era zuzen batean banatu dugu eta guztiok hartu dugu parte lan guztietan.	Batzuk besteak baino lan gehiago egin dute. Hala ere, guztiok hartu dugu parte lan guztietan.	Batzuk ia lan guztia egin dute eta beste batzuk ia ezer ez dute egin; gainera, zenbait lanetan baten batek ez du ezer egin.	Batzuk lan guztia egin dute eta beste batzuk ezer ez, eta arazoak izan ditugu lanak amaitzeko.	Taldeko kide guztiek ez dugu ia lanik egin eta arazo asko izan ditugu gauzak amaitzeko.
Gure arteko jarrera	Gure arteko jarrera oso ona izan da eta ez dugu inolako arazorik izan. Bestalde, sortutako desadostasunak hitz eginez konpondu ditugu.	Gure arteko jarrera ona izan da, baina arazoren bat agertu da eta irakaslearen laguntza behar izan dugu arazoa konpontzeko.	Gure arteko jarrera nahiko ona izan da, baina askotan arazoak izan ditugu gauzak adosteko eta irakaslearen laguntza askotan behar izan dugu.	Gure arteko jarrera ez da ona izan eta irakasleak ia gehienetan konpondu dizkigu arazoak, gure kabuz ez baikara gai izan.	Gure arteko jarrera txarra izan da eta batzuk besteekin haseretu dira. Gainera, irakaslea ia momentu guztietan gure alboan egon da arazoak egon ez zitezen.
Beste taldeetakoekin izandako jarrera	Beste taldeetakoekin oso jarrera ona izan dugu eta beli errespetuz hitz egin diegu. Gainera, galdetzen zizkiguten gauza guztietan lagundu diegu eta eskatzen zizkiguten gauza guztiak eman dizkiegu.	Beste taldeetakoekin jarrera ona izan dugu, baina momenturen batean ez dizkiegu gauzak ondo eskatu edo galdetu dizkiguten gauzei era egokian erantzun.	Beste taldeetakoekin jarrera ona izan dugu gehienetan, baina momenturen batean eztabaidaren bat izan dugu eta irakaslearen laguntza behar izan dugu.	Beste taldeetakoekin jarrera nahiko ona izan dugu, baina behin baino gehiagotan eztabaidak izan ditugu eta irakaslearen laguntza askotan behar izan dugu.	Beste taldeetakoekin jarrera txarra izan dugu eta momentu guztietan irakaslea gure alboan egon da arazoak egon ez zitezen.
BATEZBESTEKOAK					